

Aurkezpena

Kaixo José María Imizcoz Beunza nauzue, iruritarraren seme eta gerra aintzinetik Iruritako eskolako maisu-maistra izan zirenen biloba.

Sorbonako Unibertsitateko Historian doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko Historia Modernoko katedraduna naiz.

Bizitza osoa eman dut gure Baztan maitearen historia ikertzen. Historia honen inguruko lan aunitz argitaratu ditut, profesionalen artean baino ibili ez diren aldizkari zientifikoetan eta liburu akademikoetan. Orain zuekin partekatu nahi dut. Web Orrialdea lehentasunez baztandarrei eta Baztan maite dutenei zuzenduta dago. Eskerrak eman nahi dizkiot haraneko jendeari bere harrera apartagatik, eta ulertzen dut hau dela eskain diezaiekedan trukerik onena.

Duela zenbait urte Baztango Historiari buruzko hitzaldi ziklo bat antolatu genuen. Zuetariko aunitzek gogoratuko duzue. Orduan itxaropen ustelik ez egiteko erran zidaten, arras jende gutxi bertaratuko zela. Baina 200 pertsona ere etorri izan ziren, inoiz ikusi gabea.. Orduan lezio bat ikasi nuen: Baztandarrari bere historia interesatzen zaio. Eta aunitz.

Orrialdearen ardatza "historia Modernoa" izeneko aldia da, gutxi gorabehera 1500etik 1800era doana. Zehatzago esanda, Erdi Aroaren akaberatik lehen gerra karlistara arte ikertu ditudan gai batzuk berrartzen ditut.

Materialak hiru mailatan zatitu ditut. Atal bakoitza gaiari buruz azalpenak ematen dituen PDF batekin irekitzen da. Ikuspegi orokorra ematea da helburua, giltzak, publiko guziarentzat pedagogikoa eta ulergarria izan dadin saiatuz, xehetasun handiegiekin aspertu gabe.. Gehiago jakin nahi dutenendako bi maila gehiago daude: "Estudioak" non sakonera handiagoko testu akademikoak sartzen ditudan eta "Dokumentuak", zeintan baztango etxeei, lekuei eta gaiei buruzko antzinako dokumentuak igoko ditudan.

Akitzeko, esker mila aunitz urte hauetan lagundu didazuen guziei. Zaila izango litzateke zuek guziak aipatzea. Irudiei dagokionez eskerrak eman dizkiet Tomas Sobrinori, Blanca Jimenezi, Pello Iriarteri eta Luis Lacondeguyri egindako ekarpenengatik.